

B

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

Leioak udalerriko 16 langabetu kontratatuko ditu Tokiko Enplegu Planaren markoan

Leioako Udalak, Behargintza Leioaren bitartez eta Lanbideren eskutik, udalerriko 16 langabetu kontratatuko ditu, sei hilabetez, 2015eko Tokiko Enplegu Planaren markoaren barruan.

Programa honetan, lan ildo desberdinak ezarriko dira enplegua sustatze aldera Leioako garapen sozioekonomikoan eta Leioa modernizatzean eragiten duten proiektuen bidez, eta Enplegua Berraktibatzeako 2013-2016 Programan ezarritako enplegurako tokiko ekintzaren helburuarekin bat eginik: AUZOKO LAGUNTZAILEAK, e-Leioa Bidean eta LEIOA BERPIZTU.

Guztira, 7 pertsonak osatuko dute Auzoko Laguntzaileen taldea. Horiek, estu estuan lan egingo dute Leioako Udaltzaingoarekin, batez ere, informazioa eman, zenbait gaitan aholkularitza eskaini eta udalerriaz zaintzeko, horrela, benetako ongizaterako egoeran egon dadin.

Beste pertsona bat zuzenean kontratatuko da e-Leioa Bidean proiektua aurrera eramateko. Bere lana izango da udalerriko saltokien merkataritza elektronikoa eta salmenta on-lineko plataformaren softwarea eta tresnak garatu, ezarri gidatzea.

Azkenik, profil desberdinak dituzten zortzi leioaztar kontratatuko dira Leioa Berpiztu egitasmoan lan egiteko: hutsik dauden lonjen egoera estetiko hobetu eta aktibo dauden lonjen errealitatea ezagutu enpresei lagatzeko zubiak eraikitzen laguntzeko errentagarria izan daitekeen negozioa ixtera heldu barik, eta horrela, ekintzaile berri baten eskuetan uzteko aukera eman.

Hauek dira kontratatuko diren 8 pertsonen profilak:

- Udalerriko lokal eta linjen mapa egiteko pertsona bat.
- Merkatariei aholkularitza eman eta beren beharrei so egiteko pertsona bat.
- Igeltserotzan esperientzia eta prestakuntza duen pertsona bat.
- Kanpo eta barrualdeak pintatzen esperientzia eta prestakuntza duen pertsona bat.
- Instalazio elektrikoetan esperientzia eta prestakuntza duen pertsona bat..
- Aurreko profiletako jardueretan laguntzen esperientzia duten bi laguntzaile.
- Barruak dekoratzen esperientzia eta prestakuntza duen, eta lonja eta lokaletan egingo diren lanak koordinatzeko pertsona bat.

Proiektu hauen garapenarekin, Leioako Udalaren asmoa, herritarren enplegarritasuna hobetzeaz gain, udalerraren lehiakortasuna eta erakargarritasuna sustatzea da, bizitzeko gune atsegina izan dadin, herritarren esku dauden zerbitzuak dituen.

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzaileak
behargintza.ekintzaile@leioa.net

comercioelectronico.eus

Euskal merkataritza dinamizatzeko ekimen berria. SPRIk pertsonalizatutako eta doako aholkularitza eta ezartze zerbitzu bat eskainiko du, Euskadiko txikizkako merkataritzan online salmenta bultzatzeko. 500.000 euro izango dira horretarako. Saltokiek, haien ezaugarri eta beharretara egokitutako lau packen artean aukeratu beharko dute.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailak, **SPRI**ren bitartez, txikizkako saltokiari zuzendutako zerbitzu berri bat aurkeztu zuen, online salmenta sustatzeko. Aholkularitza eta Ezarpen zerbitzu teknologiko bat da, eta online salmentak sustatzea eta bere jarduera merkataritza elektronikora txertatzea du helburu.

Proposamena saltokien beharretara egokitzen diren lau packez osatzen da. SPRIk saltoki bakoitzak online ingurunean dituen helburuak identifikatuko ditu eta bere beharretara hobeen egokitzen den packa esleituko zaio.

“**Ecommerce Ezarpena**” packa online presentzia duten saltokiei baina ecommerce-ik ez dutenei zuzenduta dago. Pack honi esker, saltokiek online denda bat martxan jartzea lortuko dute.

“**Ecommerce Optimizazioa**” deitzen den bigarren packa, Ecommerce-a ezarrita duten saltokiei baina ordainketa sistema, posizionamendua, usabilitatea eta gailu desberdinetako diseinuen egokitzapenaren moduko arlo batean hobekuntza behar dutenei zuzenduta dago.

“**Sare sozialetan salmenta**” packa perfil sozial nabarmena duten saltokientzat baina Ecommerce sozialaren ezarpena nahi dutenentzat diseinatu da. Salmenta modalitate honek, web plataformetan inbertitu beharrik gabe, online saltzea onartzen du.

Azkenik, “**Kanpo webetan salmenta**” packa kanpo webetan saltzeko produktu egokiena duten saltokientzat diseinatuta dago. Pack honek abantailak ditu merkataritza elektronikora sartzeko garaian edota gaur egungo merkatu geografikoen zabaltzeko eta merkatu elektronikoak sortzeko, arrisku handirik gabe.



Aurkezpen hau Jon Zaratek, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun saileko Merkataritza Zuzendariak, garatu du SPRIren laguntzarekin.

Zerbitzuaren aurkezpenaren lemak “**Aktibatu zure online salmentak**”, saltokiari bere estrategian online salmenta txertatzera gonbidatzen du. Horrela, saltokiak merkataritza elektronikoen bitartez abantaila ugari izango ditu, besteak beste, Internet bidezko produktu baten salmenta, sare sozialen bidezko salmenta, online plataformen bidezko salmenta eta lehiakortasun nahiz irudian irabaztea.


EMPRENDER EN LA RED

Negoio aukerak ikaragarriak dira, online egindako salmentak izugarri hazten ari dira mundu osoan, eta horregatik, beharrezkoa da merkatu honetan egotea eta kokatzen jakitea.

eCommerce behatokiak (www.observatorioecommerce.com) eginiko “Merkataritza elektronikoaren bilakaera eta aurreikuspenei buruzko 2015eko txostenak” jasotzen dituen datuen arabera, 2014an, fakturazio errekorra lortu da berriro, eta eCommerce hauen %80k etorkizuna baikortasunez ikusten dute 2015ean ere haziko direla uste dutelako:

“Zein izango da 2015eko salmenten eboluzioa aurreikuspenen arabera?”

2015ean ESPERO ZIREN SALMENTEN BILAKAERA



Nabarmetzen den beste gai bat da gailu eramangarrien eragina handitu egin dela online salmentan, azterketa eta txosten guztiek berresten duten bezala.

Informazio hori kontuan hartuta, hasieratik planteatu beharko litzateke zein izango den gure presentzia merkatu digitalean eta estrategia egokia definitu. Ekintzaileentzat aurkeztzen diren aukerak hauek dira:

a) Sarean egotea, e-commerce barik

b) Merkataritza elektronikoa ezartzea, hauek bezalako aspektuak definituz: ordainketa sistemak, posizionamendua, erabilgarritasuna, gailu eramangarrietara egokitzea, eta abar

Kasu honetan, online salmentak enpresaren salmenta-estrategian guztiz barneratuta egon behar du.

Enpresa estrategiaren barruan ecommerce eta online presentziak duten garrantziaren adibide, Eusko Jaurlaritzak martxan ipiniko du honako asmo hau duen programa pilotua: online merkataritza denda txikietan sustatu eta erabilera orokortzea. Programa hori zehatzago azalduta dago aldizkari honetako “ComercioElectronico.eus” izeneko artikuluan.

Prestakuntza

HAZI proiektua: 25 eta 35 urte bitarteko gazte gaituak lan merkatura sartzea errazteko ekinbide berria

(Euskal Herriko Programa Operatiboa 2014-2020 - EHAA, 2015eko urtarrila)



HAZI PROIEKTUA: 25 ETA 35 URTE BITARTEKO GAZTE GAITUAK LAN MERKATURA SARTZEA ERRAZTEKO EKINBIDE BERRIA

(Euskal Herriko Programa Operatiboa 2014-2020 - EHAA, 2015eko urtarrila)

Behargintza Leioa 2015-2020 denboraldian proiektu hau garatzeko konpromisoa hartu duen Euskal Herriko 19 agentzietako bat da. Proiektuak, 25 eta 35 urte bitarteko pertsona gazteak, lanik gabekoak eta ez ikasten, ez prestakuntzarik jasotzen ez daudenak, baina lan egin nahi dutenak lan merkatura sartzeko helburuarekin ekintza ibilbide oso bat du berekin

HELBURU OROKORRA lan-merkatuan sartzea da, laguntzeko zerbitzu baten bidez, honako helburu zehatzak dituenak:

- La activación laboral mediante un programa de Coaching que movilice las emociones de las personas participantes y facilite la adquisición de competencias personales y profesionales

→ AKTIBATU PROGRAMA

- Zeharkako lan-gaitasunak hobetzea eta ahalduntzea sustatzea, honen bidez Prestakuntza lanpostuan

→ LANEKIN PROGRAMA

- Praktiak enpresan

→ LANEKIN PROGRAMA

- Gaitasun profesionala hobetzea eta lanpostuan esperientzia hartzea, lehia hobekuntzako proiektuak garatuz

→ TALENTO IHESA

Bai lan bila dabilen pertsona gaztea bazara eta programa honen funtzionamenduz gehiago jakin nahi baduzu, bai **enpresa interesduna** eta pertsona motibatu eta gaituak nahi badituzu hobeto lehiatzeko programa bat garatzeko, ez izan zalantzarik gurekin harremanetan jartzeko **94.400.41.95** eta galde ezazu HAZI programaz



Lanbide participa en el proyecto europeo SIMOVET

SIMOVET proiektua existitzen diren informazio-sistema adimendunak hobetzeko xedearekin jaio da, lanbide-heziketa hobeto egoki dakion lan-merkatuari.

Lanbide SIMOVET proiektuko bost kideetako bat da. Proiektu hau aktore ezberdinen lankidetzajardueretan datza, metodologia berritzaileen trukearen eta abiaraztearen bitartez lan-merkatuaren beharizan berrien inguruko ezagutza hobetzeko.

ERASMUS+ programak finantzaturako proiektua da SIMOVET, «Aliantza estrategikoak – Berrikuntzarako eta praktika onetarako lankidetzak» lerroaren barruan. Proiektuan zehar, praktika onen truke eraginkorra ezarri da Erresuma Batuko, Txekiar Errepublikako, Alemaniako eta Euskadiko hainbat lurralderen artean. Ondokoa dute helburu:

- Lan-merkatuari buruz eskura dagoen informazioa hobetzea ahalbidetuko duten ekintza pilotuak garatzea.
- Enplegu-politikan eta lanbide-heziketaren politikan erabakiak hartzera bideratutako informazio garrantzitsua ematea.
- Era berean, gizarte-agente interesdunei eta herritarrei informazio hau era eraginkorrean komunikatzea.

Proiektua 2014aren amaieran abiarazi zen eta, une honetan, Europa mailan burututako eta proiektuaren lehenengo zatian hautemandako praktika on batzuk inplementatzeko fasean dago.

Aldizka, kideak bildu egiten dira esperientziak partekatzeko eta batzuk besteengandik ikasteko. Proiektuaren kideak honakoak dira: Exeterreko Unibertsitatea, NFV – Txekiako heziketa-funtsa, Frankfurtoko Unibertsitatea, Lanbide eta Prospektiker.



Agenda

Abendua:

Ekitaldia: Software librearen aukerak industriarako

2015/12/02: Bilbao (Bizkaia)

Kongresua: Enpresa Digitala Invest: Elkarlana, EIKTak Industrian bultzatzeko

2015/12/15: Zamudio (Bizkaia)



Dirulaguntzak

AGINDUA, 2015eko azaroaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, giza kapital ikertzailea sartzeko laguntzetarako 2015eko deialdia egin eta laguntzak arautzen dituena. Berrikertu programa. [Buletinerako Sarbidea](#)

AGINDUA, 2015eko azaroaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, 2015-2016 epealdian EAEko saltoki handietan errotulazio aldakorra euskarara itzultzeko eta langileak euskaraz trebatzeko, diru-laguntzak emateko modua arautzen duena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 165/2015 FORU DEKRETUA, azaroaren 3koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 20/2015 Foru Dekretua, otsailaren 17koa, Innobideak-Kudeabide 2015 Egitaraua arautzen Duena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 166/2015 FORU DEKRETUA, azaroaren 3koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 26/2015 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bidez onartzen baitira LALF 2015 finantzalaguntzako planaren oinarri arautzaileak eta lehen deialdia. [Buletinerako Sarbidea](#)

202/2015 DEKRETUA, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Elkarrizketa



Komunikazio grafiko eta inprimatze enpresa bat daukazu. Zeintzuk dira gaur egun zure arloko enpresa batek aurrean dituen erronkak?

Hobekuntza etengabea eta produktu pertsonalizatuetan oso ardaztua dago gure proiektua. Gure erronkarik nagusia gure bezeroak izan daitezkeenengana produktu interesgarri, berritzaile eta oso landuak, eta ahal izanez gero balio erantsi handikoak sortuz heltzea lortzea da.

Pertsona geldiezina eta oso parte hartzailea zara. Leioako Merkatarien Elkarteko lehendakariordea zara eta “Bilbo handiko” BMI ekinbidean parte hartzen duzu. Zergatik deritzozu garrantzitsua networking delakoari?

Erreferentziaren bidezko marketina oso praktika ona da, lehiakorragoak egiten gaitu, hobeak izaten irakasten digu eta, batez ere, elkarrekin hazten irakasten digu, eta hau oso garrantzitsua da.

Geure burua kanpotik ikusten ikasten dugu, askoren arteko estrategiak sortzen ikasten dugu, eta maila pertsonalean, pertsona batek eduki dezakeen esperientzia aberasgarrietako bat da.

Udalerriko hiri merkataritzari dagokionez, zeren falta igartzen duzu?

Leioa azken urteetan gehien aurreratu den udalerrietako bat da. Ondo hazi da, modu ordenatuan eta kalitatezko zerbitzuen eskaintza zabal batekin.

Jakina, oraindik bidea dago egiteko, baina ziur naiz denborarekin jarraituko dugula zerbitzu eskaintza hau zabaltzen.

Nire ustez, Unibertsitatea-Leioa-Barakaldo tranbia lerroa oso onuragarria izan daiteke Leioarako

Eskaintzen den prestakuntzan interesa erakusten duzun pertsona zara. Zure ustez, zeintzuk dira ekiteko gai interesgarriak?

Ohiturak aldatzen diren garai batean murgilduta gaude, maila guztietan gure bizitzako ohiturak aldarazten dituen teknologia berrietan oinarritutako garai batean murgilduta gaude. Prestakuntza gure egunerokoaren parte da. Funtsezkoa da, ez dugu inoiz ikasten amaitzen. Bai, egia da interes bizia

daukadala arlo desberdinetako prestakuntza ikastaroez, pertsona erretiratuentzako gmail-i buruzko prestakuntza batetik hasita prestakuntza teknikoagoetara.

Duela gutxi, diseinu, aurre-inprimatze eta komunikazio bisualeko master bateko ikasleen amaiera proiektuko lehiaketa bateko sari banaketan egon naiz, eta ikusi ahal izan dut nola prestakuntza on baten bidez ikasle hauek ezagutza handiak lortu dituzten; beste pertsona batzuek urteak behar izan ditugu ezagutza berberak eskarmentuaren bidez eta ezein prestakuntza barik lortzeko.

Gizarte Sareetan ere aktiboa zara, harritu egin gintuen zure lokal aldaketa iragarkiak. Zein erantzun hauteman zenuen zure publiko objektiboan?

Bai, pixka bat harrigarria izan zen, zerbait txundigarria baina egiazkoa bilatzen genuen eta aspaldi ezagutzen gaituen jendeak gure hizkuntza ulertzen du jadanik.

Hazten ari gara, batez ere egiten duguna erakusteko beharra daukagu eta presente egotea gustuko dugu, diskrezio handiz, kalean, gizarte sareetan... gure publikoari egiten ditugun produktuak eta ematen ditugun zerbitzuak hurbil diezazkiokegun lekuetan eta era berean haiengan konfiantza sortu. Ikusgai gaude, pertsonak gara eta onerako eta txarrerako gaude. Ez gara ezkututzen.

Apurka-apurka gure espazioa osatzen ari gara publikoaren aurrean, nahiz eta oraindik Asuako pabiloixoan lanean jarraitzen dugun.

